



ALEA

arabako aldizkaria

VELOCIDAD



ABIADURA HANDIKO TRENA

KALTETUTAKO HERRIEN PAISAIETAN BARRENA



Aprilaren 2tik maiatzaren 9ra arte

LIBURU EGUNAK

Hitzaldiak, lehiaketak eta liburuak,
liburu ugari...

Literatura auzrez auzre





ALEA 189

2019-04-05 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

PHOT.OK

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** AHTaren albo-kalteak.
- 10 **Protagonista.** Josune Irabien, Amurrioko alkatea.
- 14 **Iritzia.** 'Bi ikuspegi', Txema Ramirez de la Piscina.
- 15 **Iritzia.** 'Mitra', Cira Crespo.
- 16 **Sarean.** #ABTX19.
- 17 **Iruditán.** Liztor beltza, jomugan.
- 18 **Ekonomia.** Errenta aitorpena egiteko garaia.
- 19 **Politika.** 'Mozal legea' ezarri diote kazetari bati.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Gizartea.** Irune Lujanbio, AFANIS elkarteko kidea.
- 24 **Euskara.** Korrika, gero eta gertuago.
- 28 **Gure bazterrak.** Oion.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Txema Ramirez de la Piscina, Cira Crespo, Oreka
IT eta Emaize.

Bizitzak eta lurrak, AHTaren 'albo-kalteak'

AHTaren kontra 7.000 alegazio bildu zituzten Lautadan hogeitun egunetan, eta eskualdea erditik zatituko duen asmoaren aurrean oposizio handia dago. Arabako Haranetan ere "zentsugabekeriaren" aurrean altxatu dira bizilagunak. Tren lasterrak ekarriko dituen ondorioen berri eman diote ALEAri kaltetuek.



Lautadako herri txiki ugariaren sarreran eta etxe gehienetan zintzilik dago AHTaren kontrako banderatxo zuri-beltza: Langarikan, Azilun, Burgun, Gazeon... Oposizio handia piztu du eskualdean Abiadura Handiko Trenak. "Kezka handia dago hemen; proiektua ezagutu eta berehala 7.000 sinadura jaso genituen, hogeiei egunetan. Sustapen Ministerioan aitortu digute inoiz jaso duten alegazio kopururik handiena dela". AHTaren kontrako plataformako kide eta Langarikako bizilaguna den Aritz Albainarekin eta Munaingo Iñigo Hernandezekin hitzordua du ALEA aldizkariak, proiektuaren nondik norakoak kaltetuen ahotik ezagutzeko.

Nafarroako Sakanan sartu eta gero, Lautada punta batetik bestera zeharkatuko luke AHTak, Espainiako Sustapen Ministerioak iaz aurkeztu zuen alternatibaren arabera. Ordura arte, Nafarroaren eta *Euskal Y*-aren arteko lotura Ezkion, Gipuzkoan, egitea aurreikusten zuten, baina azken orduan aldatu dute plana. Bi aukeren artean luzeena da Lautada erdibitzen duena, baina erakundeen arabera ingurumen kalte txikiena eragiten ei duena da, eta egiten merkeena.

Lautadako kaltetuek, aldiz, ekonomikoki eta sozialki bideragarria ez den egitasmoa dela uste dute. Onurarik ez duela ekarriko azaldu dute, eta gainera, lurraldea birrinduko duela. Are gehiago, Albainaren eta Hernandezen esanetan, Lautadako herri ugariaren etorkizuna kolokan jarriko du AHTak.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**





Hainbat herri itoko lituzke tren lasterrak lautadarren hitzetan: "Ibargurenen eta Urabainen etxeetatik hogeita hamar bat metrora pasatuko da; beste herri batzuk azpiegitura erraldoiez inguraturik geratuko lirateke: autobia, AHTa eta gaurko trenbidea... Erabat isolatuta geratuko dira, ezingo da bertan bizi!". Ehunka nekazaritza lur eta labore ere jango ditu azpiegiturak, eta eraikuntza obrak egiten diren bitartean herrien arteko bideak eta soroetara zein inguruko mendietara joateko sarbideak itxiko dira.

Gainera, inguruko baso-irlak eta korridore naturalak hondatuko direla salatu dute Hernandezek eta Albainak, eta

Done Jakue bidea, Posta bidea eta Ignaziotar bidearekin batera, aztarnategi arkeologiko garrantzitsuak ere kaltetuko dituela tren lasterrak. "Arabako Lautada osoan hoberen gorde den tenplu erromanikoa, Arraraingo San Joan basiliza, hormigoiaaren azpian desagertuko dute", esan du Albainak.

Deialdiak

AHTrik Ez Arabak hainbat ekitaldi eta manifestazio bat antolatu ditu hurrengo egunetan.

Apirilak 10

- **18:30** Mahai-ingurua alderdi politikoen ordezkariekin. EHUko Gasteizko campuseko Gradu Aretoan.

Maiatzak 8

- **19:00etan** Hitzaldia: "AHTa: zulora garamatzen tren". Aldabe gizarte etxean.

Maiatzak 18

- **12:30ean** Manifestazioa. Gasteizko San Anton Plazatik.

Aramaioko eta Sanabriako lagunen bizipenak

AHTaren inguruan informazioa biltzeko antolatu dituzten batzarretan aukera izan dute bertatik bertara ezagutzeko tren lasterrak orain arte zapaldu dituen hainbat herriren bizipenak; eta ikaratuta daude. Aramaioko Lierni Altuna alkatearekin izan dira, eta Sanabriako (Zamora, Espainia) bizilagunen testigantzak ere jaso dituzte. Kontatu dietena "beldurgarria" dela dio Hernandezek: "Aramaion obrak hamar urtez luzatu dira, eta oraindik egin dizkieten kalteak konpontzeko borrokan dabil alkatea, Madrilen eta Gasteizen; herriko bideak moztu dituzte, ezin ziren baserrietan sartu... Sanabrian ere sekulako txikizioa egin dute. Bertako lagun batek kontatu zigun herriko zuhaitzak bota zituztela, hirurehun urte zituzten haritzak! Eta, gero, eraikuntza enpresek saldu zituzten zuhaitz horiek. Mafia bat bezala funtzionatu dute".

Desjabetzeak ere kezka iturri dira. Izan ere, plataformako kideek salatu dutenez, erakundeek "trikimailuak" erabili ohi dituzte, ahalik eta merkeen edo ezer ez ordaindu gabe nekazarien eta kontzejuen lurra okupatzeko, eta kaltetuen eskaerak saihesteko informazioa ezkutatzen dute. "Ustelkeria eta *trapitxeo* hutsa da", esan du Hernandezek.

Lautadan, batzar, hitzaldi eta mobilizazio garrantzitsuak egin dituzte iragan urtetik, eta Kuadrillako udal guztiek mozio bat onartu dute; batzuk AHTaren Lautadako egitasmoa arbuaiatuz, beste batzuk azpiegitura bera errefusatu. "Aguraingo udalbatzan Lautadako

proiektuaren kontrako mozio bat onartu zuten. Ez dugu ulertzen guretzat nahi ez duguna besteentzat nahi izatea, baina tira, Aguraingo kasua kenduta, Lautadako udal guztiak AHTaren kontra daude".

Informazio falta

Arabako beste muturrean, Komunioi, Leziñana Oka edo Manzanos herrietan ere, agerikoa da AHTak sortu duen ezinegona, eta kartelak zein pankartak ikus daitezke, "tren sozialaren" aldekoak eta azpiegitura erraldoiaren kontrakoak. Giroa apalagoa da herri hauetan, baina aurrera doa bertan sortu duten Arabako Haranetako AHTrik Ez plataformaren lana. Quintanilla de la Ribera herrira hurbildu da ALEA, Ribabellosatik hamar bat kilometrora, Manzanoseko Lidia Alvarez, Mentxu Zamorano eta Guillermo Ruiz de Alegriarekin, Ribabellosako Endika Ruiz de Loizagarekin eta Leziñana Oka Consuelo Barriusorekin hitz egiteko, eta gertutik ezagutzeko AHTaren inguruan bertako kaltetuek duten irudipena.

Lautadan bezala, iaz aurkeztu zuen Espainiako Sustapen Ministerioak ere AHTaren Burgos eta Gasteiz arteko ibilbidea, eta Arabako Haranetan izango duen inpaktua agerian geratu zen. Kaltetuko dituen Berantevilla, Erriberabeitia, Zanbrana, Erriberagoitia eta Iruña Okako bizilagunek "kasualitatez" jakin zuten haien lurrak zulatu behar zituela AHTak, inork ez baitzuen Batzar Administratiboa informatu. Horrenbestez, alegazioak aurkezteko estu eta larri ibili dira: "Ribabellosan alegazioak aurkezteko epea amaitzeko bi egun falta zirenean jabetu ginen gainean etortzen zitzaigunaz. Ez dakigu jendeak alegazioak aurkezteko denbora izan duen", aitortu du Ruiz de Loizagak.

Bi euro metro koadroko

Leziñana Okako Batzar Administratiboari ere ez zioten proiektuaren berri eman, nahiz eta legez hala egin behar duten. Alta, obrak kaltetuko dituen lursailen jabe guztiek aurkeztu dituzte alegazioak; eta haserre daude nekazariak. Barriusoren esanetan, metro koadroko bi edo hiru euro ordainduko dizkietela aurreratu diete nekazariei, eta herriko lurraren truke sosik ez dute jasoko kontzejuek. "Hogei golde kenduko dizkidate, hainbat lursail okupatuko dituzte obrak irauten duten bitartean, eta gainera Leziñana Oka beste herri batzuekin lotzen dituzten bideak moztuko dituzte". Herrientzat eta gizarte osoarentzat ondarearen galera "jasanezina" dela azpimarratu du Barriusok.



Aurreko orrian, Iñigo Hernandezek AHTak erdibituko dituen Lautadako lurrak erakusten. ESTITXU UGARTE

Ezkerrean, Iñigo Hernandez eta Aritz Albaina, Lautadako AHTrik Ez plataformako kideak. ESTITXU UGARTE

Goian, Añanako Haraneko plataformako kideak AHTaren kalte larriak pairatuko dituen Quintanilla de la Ribera herriko sarreran. PHOT.OK



Ezkerretik eskuinera, Guillermo Ruiz de Alegria, Endika Ruiz de Loizaga, Lidia Alvarez, Consuelo Barriuso eta Mentxu Zamorano. PHOT.OK

"IBARGURENEN ETA URABAINEN, ETXEETATIK HOGEITA HAMAR BAT METRORA PASATUKO DA AHT-A"

ARITZ ALBAINA

"INGURUMEN INPAKTU IZUGARRIA SORTUKO DU AHT-AK, ETA HERRIEN GARAPENA TRABATUKO LUKE"

GUILLERMO RUIZ DE ALEGRIA

"HERRIENTZAT ETA ARABAKO GIZARTE OSOARENTZAT ONDARE GALERA JASANEZINA EKARRIKO LUKE"

CONSUELO BARRIUOSO

Nekazaritza lurrak okupatzeaz gainera, bestelako kalte larriak ere eragingo ditu trenak herri txikietan. Hala, Ruiz de Loizagak azaldu duenez, Quintanilla de la Ribera kokatuta dagoen bailara lasaia "txikituko dute", herritik hamar bat metrora irekiko baitute AHTaren tunel baten sarbidea, eta azpi-estazio elektriko bat jarriko dute ondoan. Komunioi aldean ere basoak desagertuko lirateke.

Herriak, gatibu

Antzeko egoera dute Manzanosen, etxeetatik berrogeita hamar metrora dagoen mendi bat zulatu behar baitute. Suminduta hitz egin dute herriko hiru bizilagunek AHTak egingo dien kalteaz. "Trenbideko tunelak zulatzeko makina sartuko dute gure etxe ondoan; jada esan digute jasangaitza izango dela, eta etxeetan ere kalteak eragin ditzaketela leherketek. Orain, orkatzak eta basurdeak ikusten ditugu hemen, lasaitasuna dago. Zer gertatuko da obrak hasten direnean?". Kezkatuta daude AHTaren obrak aurrera eginez gero, herria isolaturik eta azpiegitura erraldoiez inguratutik geratuko delako. "Nor etorriko da bizitzera Manzanosera? Nork bizi nahi du mega-azpiegiturek inguratuta? Nork aguantatuko du hamar urtez iraungo duen obra bat?".

Arabako Haraneko herrien etorkizuna auzitan ikusten dute plataformako kideek. Ruiz de Alegriaren ustez, AHTak ingurumen inpaktu "izugarria" sortzen du eta herrien garapena eta bizitza trabatzen ditu. "Gainera ekonomikoki eta sozialki ez da bideragarria, zentzugabekeria da. Soilik interes politiko eta ekonomiko pribatuak elikatzeke egiten dute".

AHTak herrien bizitzan izanen duen eragina ikusirik, herritarren aldetik erantzun zabalagoa espero zuten, eta zinegotzien kezka handiagoa ere, baina ez da hala izan. "Jendea etsituta dago, ez da mugimendurik ikusten. Zinegotzien jarrera are larriagoa da, ez dute informaziorik, eta ez dira kezkatzen ari herrien etorkizunaz. Ikaragarria da! Baina berdin dio, borrokatzen jarraituko dugu". ■■■



*Aurtengoan ere GEU, Oihaneder eta ALEAk
elkarrekin egingo dugu gure kilometroa.*

*Gainera, milazangoarekin batera egingo dugu
korrika, guztion urrats sendoekin euskarari
bultzada emango dion milazangoa!*



**Joan Karlos I-Stockholm kaleen bidegurutzean (Salburua)
Apirilaren 14an 10:30ean**



"Udal taldeen arteko elkarlana nahiko ona izan da, eta bada"

JOSUNE IRABIEN AMURRIOKO ALKATEA (EAJ-PNV)

Amaitzear dagoen legealdiaren balorazioa egin du Amurrioko alkate Josune Irabienek. Udal barruan egindako aldaketaz egin du berba, eta baita krisi ekonomikoak udalerrian duen eraginaz. Horrekin lotuta azaldu du behategi bat egiten ari direla, datozen hilabeteotan neurri zehatzak martxan jartzeko asmoz. Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri**.

Urteak daramatza Josune Irabien (Amurrio, 1970) jeltzaleak politikagintzan. 2003tik 2007ra bitartean Arabako batzarkidea izan zen, eta 2007tik 2011ra Aiaraldeko Kuadrillan ibili ostean, 2011ko ekainaren 11n hartu zuen Amurrioko alkatezta, Pablo Isasi ordezkatzuz. Bere burua oraindik ere "indartsu" ikusten duenez, hautagaitza aurkeztu du hirugarrenez. **Zortzi urte daramatzazu Amurrioko alkate izaten. Nola baloratzen dituzu?**

Ez dira errazak izan. Aldaketa momentua izan da. Sartu ginenean krisialdia puri-purian zegoen eta horrek eragin zuzena izan zuen erakundeetan. Bestetik, aldaketa normatiboak ere egon dira nonahi, administrazio publikoak fiskalizatzeko, eta horrek eraman gaitu administrazioa motelago aritzera. Krisialdia dela eta, bere momentuan pentsatu genuen momentu egokia zela administrazio barruan aldaketak egiteko, eta berrantolatzen ibili gara: tramiteen gida liburua dago, batetik; eta herritarren arreta zerbitzua, bestetik. Horrekin lotuta, parte-hartzea garatu dugu urteotan. Laburbilduz, kanpora begira begi bistan dauden proiektuak garatzeaz gain, ikusten ez direnak baina beharrezkoak direnak ere egin

ditugu, eta azken horiek ezinbestekoak dira barneko funtzionamenduan aritzeko.

Arlo politikoan, nolako legealdia izan da azken hau?

Zaila, bai amaitzear dagoena eta baita aurrekoa ere. Azken honetan sei talde izan gara, eta hori kudeatzea ez da erraza, jakinda ez dugula gehiengorik. Zentzu horretan, saiatu gara arloko batzordeak zabaltzen.

Elkarlanik egon da gainerako alderdi politikoekin?

Elkarrizketa oso ohikoa izan da, eta bada egun ere. Zailtasunak zailtasun, elkarlana nahiko ona izan da. Gai konkretu batzuekin ez dugu arazorik izan; aurrekontuetan, esaterako, emendakinak aurkeztu dira eta kopuru handia onartu izan da guztien artean. Saiatu gara, gainera, guztiokin batera lortzen adostasuna. Hori da, hain justu, demokrazia baten oinarria. Gu ere oposizioan egon gara, eta orduan ikasi genuen, herriaren ordezkaria zaren heinean, erantzukizuna duzula.

Hurrengo legealdira begira, dinamika berdinarekin jarraitzeko asmoa duzue?

Politikagintzan ibili behar duzu indartsu zauden eta ideiak dituzun bitartean, eta nik uste dut oraindik ere Amurrio kalitate oneko herria bada ere, beti daudela gauzak egiteko. Une honetan ideiak daude garatzeko, eta datozen urteei begira, jarraitu behar dugu administrazioa berrantolatzen;





Josune Irabien, bere bulegoan. M.B.

"SARATXOKO SAIHESBIDEAREN PROIEKTUA EZ DA ERRAZA IZAN KUDEATZEKO"

"AMURRIKO LANGABEZIA %14KOA DA. HORREN AURREAN, UDAL LAN BEHATEGI BAT EGITEN ARI GARA"

"GURE PAPERA DA KATASTROFISTA EZ IZATEA ETA, AHAL DEN NEURRIAN, NEURRIAK MARTXAN JARTZEA"

esaterako, eguneroko zein barruko funtzionamenduko tramiteak sinplifikatu behar dira eta horren bueltan badago proiektutxo bat. Arlo estrategikoei dagokionez, badaude hainbat gabezi guri dagozkigunak zein beste administrazio baten eskuetan daudenak; saneamenduarena, adibidez, ez dagokigu guri, baina kezkatzen gaitu eta bultzatuko dugu. Horrez gain, helduentzako eguneko zentro berria sustatuko dugu, gasolindegia inguruan biribilgunea egiteko proiektua dago, aparkaleku berriak egitea institutu inguruan eta erdialdean, *Mugiment* proiektua, Nerbioiko parke

linea hegoalderantz zabaltzea. Proiektu asko ditugu esku artean.

Diputazioari dagokionez, nolakoa izan da harremana? Amurrio Gasteiztik 40 kilometrora pasatxo badago ere, gertutasunik ba al dago?

Aiaraldean krisialdiarekin ikasi duguna da udal moduan proiektu bat aurrera ateratzeko aukera ez baduzu, ez duela merezi. Lehen, alde ekonomikoari begira, Aldundia eta Jaurlearitza lagungarriak ziren hainbat egitasmo bultzatzerakoan. Fase hori gaingiduta dago, eta egun, elkarlana ez dator arlo ekonomikotik. Horrekin lotuta, esfortzu handia egin da Aldundiaren aldetik eskualde mailan hainbat proiektu erakargarri egiteko: euskara teknikarien sarea, adibidez.

Diputazioari dagokio Saratxoko saihebidetuen proiektua. Obrak hastear daude, baina proiektuak ez du guztien oniritzia; tartean, Saratxo Bizirik dago. Zer dio Udalak horren inguruan?

Hasierako proiektua ziurrenik ez da guztien gustukoa, baina beharrezkoa da zerbait egitea; beharra handitu da urteekin. Saihebidetuen proiektu barruan badago arazoak sortu dituen Hego lotura, oso hedakorra delako. Hainbat erakunde ibili gara horrekin, hori txikitu nahian: Saratxoko herri batzarra, alderdi politiko batzuk, Udala bera. Baina Diputazioatik azaldu dute segurtasunaren ikuspuntutik ondoen dagoena dela. Eta horrekin ezin izan dugu ezer egin. Ez da erraza izan kudeatzeko. Saratxo herriak behar zuen bestelako erantzun bat, baina momentu jakin batean ikusi da beharra dagoela. Egungo errepideak dituen zailtasunak, segurtasun ikuspuntu batetik, oso nabariak dira. Saiatuko gara lana osatzen den bitartean ekidin daitezkeen afekzioak txikitzen.

Krisia aipatu duzu hasieran. Nolakoa da udalerriko egungo egoera ekonomikoa?

Aiaraldeak duen egoera ez da gozoa. Gainerakoetan, langabezia beharrezko badoa, gurean gora doa. Amurriokoa %14koa da. Horren aurrean, udal lan behategi bat egiten ari gara. Une honetan, diagnosiarekin gaude; bereziki, langabetuen profiletan nahi dugu arreta jarri. Bertako enpresetako lan mota aztertzearekin batera, zerbitzuetakoa eta lehen sektorearena ere ikertzen gabilta. Gure papera da katastrofista ez izatea eta, ahal den neurrian, neurriak aztertzea eta martxan jartzea. Diagnostika egin ostean, botika bilatu nahi dugu; estrategia zehatza osatu behar dugu datozen hilabeteotan.

Bestalde, zer giro dago Amurrion? Batetik, Alfredo Ramirez eta Julen Ibarrolaren espetxe zigorrak daude; bestetik, ezker abertzaleko familia baten baserriaren kontra tiro egin zuen polizia nazional ohia dago. Eta hori gutxi balitz, VOX taldeko Santiago Abascal ere Amurrion jaio zen...

Bata bestearen atzetik suertatu da eta udalerrian zerbait gertatzen ari dela ematen du. Baina, bakoitzak badu bere azalpena eta konnotazioa. Julen eta Alfredoren kasuan, eskubideen urraketa bat egon da; oso begi bistakoa izan da eta salatze modukoak dira. Tiroketarena oso larria izan da; zoritxarrez, gertatu da. Eta Abascali buruz, zer egin dugu guk horrelako pertsona bat Amurriokoa izateko? Nik ez dut identifikatzen Amurriorekin, ez du zerikusirik hemengo gizarte planteamendurekin. Guzti honen aurrean, etapa berri bat zabaldu behar dugu.

Espainiako hauteskundeak ate-joka daude. Nola ikusten duzu panorama? Arduratuta zaude?

Soziologikoki Euskadin eta Espainian gertatzen dena erabat ezberdina da. Baina egia da gure ordezkariak hara doazela, eta hango giroa pairatuko dutela. Egia esan, Espainia inboluzio batean dago murgilduta; gizartea nazka eginda dago. Nahiko nahastuta dago guztia. Gainera, demokrazia behin baino gehiagotan jokoan egon da; hain justu, oinarritzko gauza batzuk zaindu ez direlako. Gizarte aurreratutako batean kritikak egotea ona da, baina helburua galdu gabe. Kataluniako auzia oso gaizki kudeatu da, korrupzioa, justizia ere beste botere batzuetan sartu da... Zoritxarrez, Euskadin baditugu oraindik ere hainbat elementu gure gainetik daudenak eta gurean eragin zuzena

durenak: arauak, tartean. Eta Espainiara jo behar dugu. Euskadi mailan, hauteskundeak eragina izan dezakete; baina, espero dut oso handia ez izatea. **Europako hauteskundeak ere tartean daude. EAJ ez da PdeCATEkin aurkeztuko. Ze eragin eduki dezake erabaki horrek?**

Helburuei begira, gauza bera da: Europan egotea ezinbestekoa da. Ez dut asko baloratu nahi erabaki puntual hori, errespetatuko dut. Nik neurea propioa ere badut. Baina uste dut inportanteena dela bertan egotea; oso txikiak gara besteen artean, baina Euskadiko ahotsa hori egotea beharrezkoa da.

Udal hauteskundeak begira, euskara agenda politikoan sartzeko Ez we cant kanpaina jarri dute martxan eskualde mailan...

Bai, hala da. Kritikoa naiz, neurri batean, agian lehenago egin behar zelako. Baina beharrezkoak dira horrelako kanpainak. Alderdi batzuei agenda barruan baldin badute, gehiago kostatzen zaie, eta horrelako neurriek animatzen edo behartzen zaituzte. Euskara gure agenda politikoan egotea bermatzen dugu modu horretan. Baina, esandakoa, kontua ez da programan bakarrik eramatea, errotuta izatea baizik, eta horretarako aurretik egin beharreko zerbait zen.

Amaitu aurretik, nola ikusi nahiko zenuke Amurrio, lau urte barru?

Nahiko nuke amurriotarrok harro sentitzea Amurriokoak garelako. Harro sentitu behar dugu herriarekin, daukagunarekin, gure historiarekin eta identitatearekin... eta hori ere landu behar dugu, bestela bihotzik gabeko gizarte batean bihurtzen garelako.



BATXILERGOA

JESUS OBRERO - MOLINUEVO - NIEVES CANO

IZENA EMATEKO EPEA: maiatzaren 2tik 14ra arte

ATE IREKIAK - 18:00etan

Astearteetan NIEVES CANOn
Asteazkenetan MOLINUEVOOn
Ostegunetan JESUS OBREROn



ARRIAGA - JESUS OBRERO - MENDIZORROTZA - MOLINUEVO - NIEVES CANO

www.egibide.org
info@egibide.org

Bi ikuspegi



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

KAZETARITZAKO IKERTZAILEA

Zenbat buru, hainbat aburu esan ohi da. Horixe egiaztatu nuen nik Gasteizen joan den astean. Hauxe gertaera, ahalik eta modurik objektiboenean azalduta. Joan den ostegunean izan zen, 17:05ean, Errege-erregina katolikoan kalean. Espaloitik nindoala, lauzpabost txirindulari ikusi nituen errepidetik. Atzeko parteari lotuta, hauteskunde propagandarako erabiltzen diren euskarri fisiko handi horietako bat zeramaten tiraka, lau gurpiltxoan gainean. Euskarriaren gainean, zutunik panel ikusgarri bat, lauki karratu bat, alde bakoitza metro eta erdi ingurukoa. Panelaren erdian Leticia Comeron PPko alkategaiaren irudia agertzen zen. Txirindulariak gazte afrikarrak ziren eta euren artean solasaldi ederrean zetozen, atzean zeramaten kargari axola gehiegirik egin gabe. Saiatu nintzen kartelak zeraman leloa irakurtzen. Ez nuen astirik izan. Arraroa iruditu zitzaidan eszena, batik bat formalki bederen maiatzaren 26ko hauteskundeetarako kanpaina hasteko dezente falta delako.

Horretan nengoela, eszenak sortu zizkidan gogoetei bueltak ematen, hara non 70 urte inguruko emakume ezezagun bat hurbildu zitzaidan, oso tonu hurbilekoa erabiliz hauxe esateko: "*Estos son los que nos quieren gobernar*" [Hauek dira gobernatu nahi gaituztenak]. Ez nekien PPkoen ari zen edota txirindulariez ari zen. Hurrengo esaldiak deblauki argitu zidan zalantza: "*Me han dicho que han metido hasta a marroquí en las listas electorales: no hay derecho!*" [Esan didate hauteskunde zerrendetan marrokoarrak ere sartu dituztela; ez dago eskubiderik!]. Harri eta zur gelditu nintzen, zer esan jakin gabe. Eztarrian sortu zitzaidan korapiloa irentsi eta ez erantzutea erabaki nuen. Agur esan eta aurrera jarraitu nuen etxerantz.

IZUTU NINTZEN jabetzean arrazismoak gurean dituen oinarriak zein sendoak diren. Lan mardula dugu aurretik. ■■■

**IZUTU NINTZEN
JABETZEAN GUREAN
ARRAZISMOAK DITUEN
OINARRIAK ZEIN
SENDOAK DIREN**

Mitra



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

Joan den abenduan, eskuin muturreko alderdi espainol batek, Vox izenekoak, oso emaitza ona atera zuen Andaluzian. Bere boto-emaileen artean %72 inguru gizonak omen dira. Emakumeak maite ez dituzten gizonak, edo, hobeto esanda, bizitza maite ez dutenak.

Erromatarren garaian, bizitza eta ideologia jainkoen panteoiaren bidez ordenatzen zuten. Beti bezala, jainkoei esker justifikatzen zuten bizitza. Erritual ezberdinak zeuden, batzuk komunitarioak, beste batzuk intimoagoak (erritu misterikoak). Erritu misterikoen artean, ia guztiek zerikusi handia zeukaten emakumearekin, eta ia denetan jainkoren baten sufrikarioa agertzen zen, berarekin enpatizatzeo aukera ematen zuena.

Bazeuden, halere, salbuespenak: Mitra jainkoarena, adibidez. Berak ez zuen inoiz eragindako minik ordaintzen. Mitra indartsua zen, beti irabazlea, sekula ere ez galtzailea. Hiltzalea ere bazen. Zezenaren hiltzailea, zehazki. Ez da kasualitatea, Mitra erromatar militarren artean oso estimatua izatea, ezta emakumeek bere errituan parte hartzea debekatuta izatea ere. Are gehiago, bere garaian argi zeukaten: "*Mitrag emakumeak gorrotatzen ditu*" (De Fluv. 23). Berez, bestearen sufrimenduan sustengatzen zen ideologiari eusten zion Mitrak.

Mitra aipatu dut adibide gisa, ikusteko nola patriarkatuaren ideologiak mendeak zeharkatu dituen. Oraindik orain, eskuin muturreko alderdi horrek zezenaren hilketaren sinbolismoa ere gorai patzen du, Errekonkista, Espainiaren mamua, maskulinitatea, txuritasuna eta, orokorrean, menderaketa guztiak jartzen ditu mahai gainean: arrazari, generoari, nazioari eta klaseari dagozkionak (Hauek bai direla intersekzionalak!). Gizon hauek, intimitatean, mundua bere menara egotearen ameskeriak darabiltza. Emakumeak gorrotatzen dituzten gizonak gure artean daude, bere biolentziaz betetako beldurrarekin. ■■■

EMAKUMEAK GORROTATZEN DITUZTEN GIZONAK GURE ARTEAN DAUDE

SAREAN

@JUANMAGALLEG0

#ABTX19

Arabako txapela jantzi du, aurrenekoz, Iñaki Viñaspre bertsolariak. Lehia bizia izan da Gasteizko Principal antzokian, eta publikoak harrera beroa egin die sei finalistei; batzuei, pankarta eta guzti eraman diete herrikoek. Txapeldun berriak harrera izugarria jaso du Angel Ganivet eskolan, bertako irakaslea da eta. ■



**ANE
ZUAZUBISKAR**
@AneZuazubiskar

Hastear da Arabako Bertsolari Txapelketaren finala. Oholtzan, Manex Agirre, Aroa Arrizubieta, Peru Abarrategi, Xabi Igoa, Oihane Perea eta Iñaki Viñaspre. Eta Principal Antzokia, bero...



TXEMA LANDA
@LandaTxema

Iñaki Viñaspre txapeldun, halako batean; Manex Agirrerekin buruz burukoa jokatu ostean.



ERREHARRIA
@erreharria

Iñaki Viñaspre Arabako Bertsolari txapelketako txapelduna. Zorionak ... baina ez da hain epela / uste dut badakitela / Iratxe eta Ekaitz argi dut / hau merezi duzuela / eta etxean nahi zaituztegu / txori libreak bezela.



A. LAUZURIKA
@alauzurika

Earra saioa Iñaki! Aurten bai, Viñaspre txapeldun! Ta txapela Iratxe ta Ekaitzi eskainia. Arabako bertsolari txapelketako txapela Abetxukora.



**T. RAMIREZ DE
LA PISCINA**
@txeramirez

Pozgarria da oso Araban bertsozaletasuna, egunetik egunera, handituz nola doan ikustea. Horren lekuko da Iñaki Viñaspre Arabako txapeldunari bere eskolako ikasle zein irakasleek emandako harrera beroa.



Parral
taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan raziok
asteartero aktuzio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276833 GASTEIZ-ARABA(E)

 IRUDITAN



Babesa behar dute erleek

Irudian ageri den erleari Lopidako gereziondo batean egin diote erretratua. Neguan hibernatu ondoren, udaberriarekin batera, Lopidakoa bezala, milaka erle ateratzen dira Arabako basoetara eta soroetara landareen nektarra xurgatzera. Bada, garai ona da ere erleen zaintzari erreparatzeko eta liztor beltzaren aurka banatzen ari diren tranpak jartzen hasteko. Izan ere, Arabako Diputazioak liztor beltza harrapatzeko 200 tranpa banatuko ditu aurten, Laudion, Amurrión, Kuartangon eta Kanpezun; boluntarioen bila ari dira toki estrategikoetan kokatzeko.

Julia Velez de Mendizabal.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

Iritsi da kontuak emateko garaia

Gazteentzako eta herri txikietan bizi diren lagunentzako kenkariak hobetu dituzte aurtengo errenta kanpainan. Batez bestean, mila euro inguru jasoko dituzte bueltan hamar arabarretik seik.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Arabarren %65ek aitorten negatiboak izango dute aurtengo errenta kanpainan, eta, hortaz, Diputazioak zergetan ordaindutako diruaren zati bat itzuli beharko die, foru erakundeak berak egindako aurreikuspenen arabera: batez bestean 987 euro izango direla kalkulatu dute.

Ohi bezala, apirilaren 5ean hasiko den kanpainan *Rentafacil* modalitatea erabiliko dute: 115.000 inguru etxetara aurrez egindako aitortenak bidaliko dizkiete, "inoizko kopururik handiena", erakundearen hitzetan.

Aurten, alokairuan bizi diren 30 urtetik beherako gazteei %30 arte handitu diete etxebizitza gastuei lotutako kenkaria. Modu horretan, urteko 2.400 euro arte desgrabatu ahal izango dituzte. Egoera horretan 1.800 gazte inguru daukela uste du Diputazioak.

Bestalde, 4.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnek kenkari handiagoa izango dute, eta landa eremuan ohiko etxebizitza erosten dutenek ere %20 kenkari gehiago izango dute (30 urtetik beherako gazteen eta familia ugarien kasuan %25 arte handitu dute portzentajea).

Kudeaketak "errazagoak, irisgarriagoak eta azkarragoak" izango direla zirtatu du Diputazioak, eta, horretarako, zerbitzu berriak prestatu ditu. Batetik, doako telefonoak erabili ahal izango dira zenbait kudeaketa egiteko: *Rentafacil* proposamenak onartzeko edo horiek aldatzeko hitzordua eskatzeko 900 111 202 telefonora deitu ahal izango da, eta Ogasuneko bulegoetan aitortpena egiteko hitzordua eskatzeko, berriz, 900 111 203 zenbakira. Sakelako telefonoetarako aplikazioa ere prestatu dute, hitzordua eta zerga datuak eskatzeko.

Ondarea ere

Ondarearen gaineko zergaren kanpaina ere abiatu dute. 1.540 arabarrek egin beharko dute aitorten hori: 2 milioi euro baino gehiagoko ondasun edo eskubideak dituztenak edo 800.000 euro baino gehiagoko ondare garbia duten lagunak, hain zuten. Hauen partez 17,5 milioi euro jasotzea espero dute; batez bestean, 11.364 euro inguru bakoitzeko.



Aurrez egindako aitortenak onartzeko, edo horiek aldatzeko hitzordua eskatu aldera, doako telefonoak prestatu ditu Ogasunak. ALEA



'Kazetaritza ez da delitua' pankartarekin, elkarretaratzea egin dute epaitegietan. H. BEDI

Kazetariaren lanari, mozala

Mikel Saenz de Buruaga kazetariaren kontrako epaiketa izan da, duela bi urte Errekaleorren izandako polizia-operazioa grabatzeagatik. "Informatzeko eskubide urraketa" salatu du kazetariak.

ANAKOZ AMENABAR GASTEIZ

Mikel Saenz de Buruaga Hala Bediko kazetariaren kontrako epaiketa izan da asteartean Arabako Auzitegi Probintzian, 2017ko maiatzean Errekaleor auzoaren kontrako polizia-operazioa grabatu ondoren. Mozal Legeaz baliatuta, 602 euroko isuna ezarri zioten kazetariari gertakizun horren harira. Sententziaren zain, epaiketan "hainbat kontraesan" agerian geratu direla nabarmendu du kazetariak.

Hainbat errekurtsio jarri baditu ere, bide administratibotik, ezin izan du epaiketa saihestu, Saenz de Buruagak berak ALEA FM saioan azaldu moduan: "Bi urtez errekurtsioak eta frogak desberdinak aurkeztu arren, Mozal Legea gure aurrean dugun harresi bat da; epaiketarekin ziklo bat itxi dugu, gure bertsioa aurrez aurre azalduta". Mozal Legearen kontrako borroka zabalago batean "mugarri" bat izan dela uste du Hala Bediko kazetariak, baina urte

hauetan beste hainbat laguni ezarri diotela gogoratu du, eta tartean beste hainbat kazetariri: "Ez da kasualitatea kazetariaren kontrako zigorrak ematen direnean, Hala Bedi edo Argiaren kontra, beti kazetaritza mota oso konkretu baten kontra izatea; herritarrek eskuz esku egiten duten kazetaritza kritiko baten kontra, botere abusua eta indarkeria polizialak kontrolatzen saiatzen dena". Epaiketa honekin, halere, kazetari guztien eskubideak "jokoan" daudela uste du: "Gaur gure kasua izan da, baina bihar beste edozeinen kontra izan daiteke, mugak jartzen ez baditugu".

"Kontraesanak"

Epaiaketa amaituta, ertzainen bertsioan hainbat "kontraesan" izan da, kazetariaren arabera. Horietatik bi nabarmendu ditu. "Bate-tik, hasierako salaketan esan zuten ni indarrez haien kontra oldartu nintzela, eta orain hori ez dute esan eta, are gehiago, batek aipatu du gertaera eman zen momentuan lasai nengoela. Bestetik, haien salaketan aipatzen zuten ez zutela kazetaririk ikusi han, eta, aldiz, orain esan dute goizetik ikusi nindutela argazkiak ateratzen, eta onartu dute eman nien kazetari karneta ikusi zutela".

Epailearen erabakiaren zain, gertatutakoak gertatu, "injustiziak" bere horretan jarraituko duela dio Saenz de Buruagak: "Irabaziko bagenu, garaipen txiki bat izango litzateke Mozal Legearen kontra, baina legeak hor jarraituko du, eta urrats txiki asko geratzen dira egiteko". Galtzekotan, berriz, "desobediendiaren bidean sakontzen" jarraituko luketela esan du kazetariak, "informatzeko eskubide urraketa" aurre egiteko. "Espero dugu laster iraganeko kontua izatea Mozal Legea".

ESANAK



OLATZ LINAZISORO
TXERNOBIL ELKARTEKO KIDEA

"Ondo elikatzea eta aire garbia arnastea: gutxi da Txernobilgo haurrek behar dutena"



ESTHER UNZETA-BARRENETXEA
SAN PRUDENCIO FUNDAZIOA

"Elektroakustikaren bidez, hiriaren soinua bildu du 'Vitoria-Gasteiz' sinfoniak"



IÑAKI VIÑASPREE
BERTSOLARIA

"Lasaiago hartzen ditut bertsoak eta plazak, eta uste dut horrek on egiten didala"

ZENBAKITAN

Minutuak

Auto elektrikoa kargatzeak zortzi euroko kostua izango du Lopidako gasolindegian inauguratu duten karga-gune berrian. Aitzindaria omen da Estatuan. Sei minutu iraungo du prozesuak, eta 150-200 kilometro arteko autonomia emango dio autoari, Jauriaritzak zabaldu duen informazioaren arabera. Lau zutoin ditu guneak, eta, orotara 700 kilowatt emateko gaitasuna dauka. Kokapen estrategikoa dutelakoan aukeratu dute tokia: Irungo mugatik 130 kilometrora dago. Europa osoan halako 14 puntu ezarri nahi dituen proiektu pilotu baten baitan jarri dute karga-gunea.

6

8.000

Ikusleak

Alaves Gloriosas eta Athletic emakumezkoen arteko partida ikusteko 8.000 ikusletik gora bildu dira igandean Mendizorrotzean. Binako berdinketarekin bukatu da lehia. Lehen zatian etxeokoa nagusitu dira, eta, horren ondorioz, atsedenaldira bi eta hutsezko emaitzarekin joan dira. Bigarren zatian, ordea, gauzak erabat aldatu dira. Zuri-gorriek euren lerroak aurreratu dituzte eta, horren ondorioz, bilbotarren golak etorri dira.

22.100

Eskariak

Posta bidezko botoa emateko eskariak nabarmen igo dira aurreko hauteskunde hitzorduarekin alderatuta. Izan ere, Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak San Prudentziorekin eta Pazzo astearrekin batera etorriko dira. Zehazki, eta apirilaren 1era arte, %333 egin du gora eskariak, hauteskunde-eroldaren bulegoko arduradunek aste honetan azaldu dutenez. Hilaren 18an bukatuko da posta bidezko botoa emateko aukera.

Pozarraten aurkitutako meatzaritza tresnak zaharberitu dituzte

Trebiñuko Pozarrate aztarnategian iaz aurkitutako zazpi orein-adarrak kontserbatzeko lanak bukatutzat eman ditu CENIEH Espainiako Giza Eboluzioaren Ikerketa Zentroak. Iberiar penintsulan inoiz aurkitu den adarrez egindako meatzaritza tresna sortarik handiena da, duela 6.000 urte ingurukoa. Neolitoan silexa lortzeko erabili zituzten.



Zazpi adar zaharberitu dituzte. CENIEH

ARF jaialdiaren behin betiko egitaraua ezagutarazi dute

Ekainaren 21ean eta 22an ospatuko da Azkena Rock jaialdiaren aurtengo edizioa, eta antolatzaileek behin betiko egitaraua osatu dute dagoeneko. The Cult, Melvins eta Neko Case dira kartelera sartu diren azkenak. Horiez gain, Stray Cats, Wilco, Tesla edota Blackberry Smoke bezalako taldeak ere arituko dira aurrean Mendizabalean.

Bonelli arranoa babesteko neurri berriak abiatu dituzte

Espezie mehatxatua da Bonelli arranoa, eta Diputazioak hegazti hori babesteko neurri berriak iragarri ditu. Zaintzapean hazi eta naturan askatutako txitei linea elektrikoak eragozten "irakastea" da horietako bat, hori delako espeziearen heriotza gehien eragiten duen arrazoia. Mahastieie eusteko erabiltzen diren alanbreak ordezkatu nahi dituzte ere, horien kontra jotzen baitute sarritan.

Frankismoaren biktimak oroitu dituzte, ekitaldi banatan

Frankismoaren Biktimak Oroitzeko Egunaren harira, Gasteizko Udalak ekitaldia egin du igandean. Iaz aurrenekoz ezarri zen egunaren bueltan, lore eskaintza egin dute. Horrez gain, EH Bilduk duela 82 urte Azazetan fusilatu zituzten 16 lagun omendu ditu Gasteizko Santa Barbara plazan, espetxe zaharra egon zen lekuan, hain zuzen.



INFORMAZIO SAIOAK
APIRILAK 11 + EKAINAK 12
Eman izena

UNIBERTSITATE MASTERRAK

2019/2020 — IKASTURTEA



Learning from reality

Unibertsitate Masterren eskaintza:

- Orona Ideo [Donostia], Arrasate **INGENIARITZAK**
- Bilbao, Oñati, Bidasoa **ENPRESA KUDEAKETA**
- Eskoriatza **KOOPERATIBISMOA**
- Eskoriatza **HEZKUNTZA**
- Basque Culinary Center [Donostia] **GASTRONOMIA ZIENTZIAK**

www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak

"Hamar bat harrera familia behar ditugu oraindik "

IRUNE LUJANBIO AFANIS ELKARTEKO KIDEA

E. LANAÑO/ A. AMENABAR

Uda honetan Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako haurrak hartzeko dei egin diete Arabako familiei, Oporrak Bakean egitasmoaren bitartez; Aldundiak, Gasteizko Udalak, Ume Sahararrak Hartzeko Familien Arabako Elkarateak (Afanis) eta Euskadiko Frente Polisarioaren Ordezkaritzak egin dute deia. Afanis elkarateko kide Iruñe Lujanbiok azaldu ditu gakoak ALEA FM saioan.

Oporrak Bakean programa ondo ezagutzen duzu, ezta?

Bai, sei urtez Saharako bi ume izan ditugu gurekin etxean, eta aurten izango da gure zazpigarren uda. Esperientzia izugarria da. Afanis elkaratearekin batera, gainera, errefuxiatu kanpamentuetara ere joaten naiz maiz, urtean behin behintzat. Aurten go kanpainaren leloak esaten du *Orain bi familia ditut*, eta hala da, zalantzarik gabe; nik bi familia ditut, bat Euskal Herrian eta beste bat han uzten dudana.

Nola heldu zinen elkartera?

Egunkari batean auzoko ezagun batzuk ikusi nituen, eta



Iruñe Lujanbio. AFA

animatu egin nintzen. Uda hartan berandu zen, baina hurrengo urtean ume bat etorri zen etxera. Elkarateak laguntza guztia ematen dizu. Izan ere, etorriko den umeak ez du zure hizkuntza hitz egiten eta bizimodu erabat desberdina darama. Baina gero konturatzen zara ez dela batere zaila, azken batean umeak direlako, eta jolastu eta disfrutatu nahi dutelako. Erraza da, eta gainera elkarateak pila bat laguntzen dizu.

Lehenengo eguna gogoratzen duzu?

Bai, oso ondo. Umeek normalean beldurra diete txakurrei, kanpalekuetako txakurrak nahiko beldurgarriak direlako, eta guk etxean bi ditugu; hasieratik, ordea, ez zen inolako arazorik izan. Gogoan dut, baita ere, zer gustora jaten zuen etxeko fruta guztia, dutxan zenbat denbora egiten zuen... eta beste hainbat bitxikeria.

Zer helburu du Oporrak Bakean programak?

Azken batean haurrak gozatzea da helburua, basamortukoa ez den beste errealitate batean. Laguntza medikua eta elikadura orekatua ematen zaie denbora honetan, eta bertako haurren eta hangoen arteko kultura-trukea sustatzen du programak.

Zer baldintza bete behar da harrera familia izateko?

Baldintza askorik ez dago. 25 urtetik gorakoak eta 65 urtetik beherakoak izan daitezke harrera familia, eta familia mota guztiak izan daitezke. Denbora izatea da beste baldintza, eta hori da behar bada zailena, umea bi hilabetez izaten delako gurean,

eta ugari ez direlako hainbeste opor duenik.

Zenbat ume izaten dira Araban?

Berrogeita hamar bat datoz. Udalak eta Aldundiak ematen dituzten laguntzekin horiek ekar ditzakegu. Eta aurten familiak beharko dira; normalean familiek ume bat izaten dutenean gero eten bat egiten dute, eta familia berriak behar ditugu. Kanpaina oso ondo doa, baina hamar bat familia beharko ditugu oraindik. Apirilean zehar ere deitu dezakete elkartera, eta lehenbailehen egiten badute hobeto, nahiz eta informazio eske bakarrik izan.

Ondo ezagutzen dituzu kanpamentuak. Nolakoa da egunerokoa han?

Hainbat aldiz izan naiz, eta hemen duela 50 urte bizi zutena



Algeriako Hamada izenez ezagutzen den Sahara basamortuko kanpamentua. AFANIS

ekartzen dit gogora; ur saneamendurik ez, dieta eskasa... 40 urte baino gehiago bete dituzte egoera horretan, eta epe motzera, behintzat, ez

dut irtenbiderik ikusten. Maroko indartsu dago, eta are gehiago harekin doazen herrialdeekin. Pena handiarekin esaten dut, baina... ■■■



ERAKUSKETAK

Jacobo Castellano
riflepistolacañon
> 2019.05.19

Queda mucho pasado por delante. Oroí
Artium bilduma
> 2019.08.25

Argitalpen proiektuak eta artista liburuak
Erakusketa bibliografikoa
2019.04.12 > 2019.09.20

JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN
Abigail Lazkoz
04|10 19:00

HITZALDIA
Azucena Monge
04|16 19:00

LIBURUEN NAZIOARTEKO EGUNA 2019

04|12 11:45 Inaugurazioa erakusketa bibliografikoa
Argitalpen proiektuak eta artista liburuak

Arte eta kultura garaikideei buruzko tetuen jendaurreko irakurraldia

20:00 Kontzertua Anari

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK
12-18 urte bitarteko. *Musika hedatua*
04|13 17:00>19:00

ERAKUSKETEN BISITA GIDATUAK
Asteazkenero 18:30 (euskaraz)
Igandero 12:30

Artium lorategiaren bisita
04|23 18:30

Argibide gehiago:

www.artium.org

Lehen hitzordua, asteartean

Hiru bider sartuko da Korrika Araban. Lehena hilaren 9an izango da eta lurraldeko kuadrila guztiak zeharkatuko ditu, Gasteiz ezik. Apirilaren 11n Artziniega bisitatuko du eta 14an Gasteizen bukatuko da.

A. MARTINEZ DE LUNA/M. BITERI

Martxan da Korrika. 21. edizio honetan Nafarroan eman diote hasiera; Garesen, hain justu ere. Euskal Herri osoa zeharkatu eta 2.560 kilometro egin ostean, apirilaren 14an amaituko da euskararen aldeko lasterketa ospetsua, Gasteizen. Lehen egunotan, Nafarroatik, Ipar Euskal Herritik eta Gipuzkoatik barrena ibili ondoren, hilaren 9an iritsiko da gurera.

Astearte osoa eta asteazken erdia emango du Araban. Asparrena bisitatuko du lehenik; Araian 06:35ean hartuko dute lekukoa. Goizean, Lautadan eta Mendialdean ibiliko da: Zalduondon (07:14), Agurainen zein Dulantzín lehenengo; eta Azazetako mendatea igarota Maeztun, Ataurin (11:57) eta Kanpezun izango da gero.

Handik Arabako Errioxarantz joko du, Meanotik Ekorara jaitsiz. Arabako Errioxatik lau ordutik gora korrika egin ostean, Mendialdera egingo du salto berriro ere. Iluntzean, Urizaharrera helduko da eta handik Trebiñurantz abiatuko da; Korrika erdialdera iritsiko da bertan: zehazki, Franku eta Trebiñu artean dagoen 1280 kilometrora. ALEAko lagunek egingo dituzte mila metro

horiek, Trebiñuko euskaltzale Mikel Arribasekin batera. 21:45ean dago eginda hitzordua, Askartza eta Trebiñu artean dauden nekazaritza pabiloietan.

Trebiñu atzean utzita, Añanan sartuko da lasterketa; gauerdian, Langraiz Oka zeharkatuko du, eta gero Gorbeialderantz egingo du, Izarrarantz lehenengo, eta Murgiara gero. Jarraian,

ALEAK KILOMETRO BAT DU ASTEARTEAN FRANKU ETA TREBIÑU ARTEAN, 22:05EAN

Aiaraldean sartuko da Urduñatik, besteak beste, Amurrio eta Audio bisitatuko ditu; bost ordu emango ditu eskualdean. Hilaren 11n, ostera, Artziniegan izango da (08:57).

Hamaika ekimen

Ohikoa den moduan, Araba osoan hamaika ekintza antolatu dira egunotarako Korrikaren bueltan. Ostiralean, esaterako, Korrika jaia egingo dute Olarizun, eta Korrika Txikia Argantzunen. Trebiñun, berriz, bertso saioa dute Askartzako sagardotegian, Iñaki Viñaspre eta Manex Agirrereren eskutik.

Larunbaterako eta iganderako, eskualde mailako

KM	HERRIA	DATA	ORDUA
1135	Araia	19/04/09	06:35:36
1147	Agurain	19/04/09	07:53:36
1163	Dulantzi	19/04/09	09:36:57
1181	Maeztu	19/04/09	11:30:33
1196	Kanpezu	19/04/09	13:00:54
1216	Ekora	19/04/09	15:10:03
1233	Guardia	19/04/09	16:55:21
1253	Bastida	19/04/09	19:15:45
1267	Urizaharra	19/04/09	20:47:24
1278	Franku	19/04/09	21:54:24
1280	ALEAren kilometroa		
1281	Trebiñu	19/04/09	22:13:15
1290	Argantzun	19/04/09	23:11:45
1298	Langraitz Oka	19/04/10	00:07:00
1320	Izarra	19/04/10	02:35:12
1326	Murgia	19/04/10	03:16:09
1353	Amurrio	19/04/10	06:11:36
1380	Audio	19/04/10	08:17:03



festak prestatu dituzte Kanpezun (Mendialdea), Iruña Okan eta Gaubean (Añana) eta Lezan (Arabako Errioxa). Gasteizko Judimendi, Olarizu eta Arriagan ere egongo da zereginik eta baita Aiaraldean ere. Horrez gain, Korrika Kulturalaren barruan, Laburbira film laburren zirkuitua izango da hainbat herritan. ■■■

Apirilak 9, asteartea

KORRIKA ALEGRIA-DULANTZIn

- > 1163 KMa
- > 9:36tik aurrera herriko kaleetan zehar

KORRIKA KULTURALA

- > DISKO-FESTA, Mikel Egiluzekin
- Dantzatu eta ondo pasatzeko prest?? -
- > 18:15ean Enparantzan

Apirilak, 10 asteazkena

KORRIKA TXIKIA

- > Dulantziko Eskolaren eskutik
- > 15:30ean Eskolatik



21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Alegria-Dulantzi



Ongizatearen moldea

SEXUALITATEA



EMAIZE

Gorputza gure ongizatearen oinarria da. Baina honen zaintzeari hainbeste garrantzia ematen diogun garai honetan, hura sarri ahaztu egiten dugu.

Gorputza maite dugulako eta hala mantendu nahi dugulako zaintzen dugu? Gorputz ezberdinak onartzen ditugu? Gorputza hamaika aukerako elementu gisa ulertzen dugu?

Gorputza besteon aurrean aurkezteko pasahitza balitz moduan hautematen dugu maiz, eta norbaitekin harremanetan aritzean kanpo itxurak bere garrantzia duela ez dugu ukatuko. Lehen begiradan pertsona batekin zein bestearekin pizten zaizkigun sentsazioak ezberdinak dira, eta horrek neurri batean sortuko ditugun harremanak bideratuko ditu.

Sakelako telefonorako erabiltzen ditugun pasahitzek, ordea, ez dute patroï bakarria jarraitzen eta zenbakiak, hizkiak, handiz zein txikiz eta hauek guztiak nahi moduan nahastu ditzakegu. Gorputza pasahitza bezala erabiltzean, zergatik jarraitu behar dira patroï estuak? Zergatik patroï zorrotz horiek jarraitzeko gorputza eraldatu? Zenbatetan kirola argal edo gihartsu egoteko helburuaz egiten dugu bakarrik? Zenbatak jotzen dugu dietara elikadura orekatu eta osasuntsua lortzearen eta ez soilik pisua galtzeko asmoz?



Gorputz guztiak patroï berean sartu nahi izatea, *Procusto*-ren modura aritzea da; pertsona guztiak tamaina bereko ohean etzan eta sartzen ez duenari hankak eta besoak indarrez luzatu edo oinak, burua zein eskuak moztu molde horretan sartu ahal izateko. Egun ez dugu gorputz atalik moztzen, baina balioa kentzen diegu zenbait patroïri egokitu ezean. Hori gutxi balitz, gorputz guztiak ematen digutenari muzin egiten diogu bere balioari erreparatu gabe.

Gustuko usaina, laztan leunak, musu hezeak, kilimak, maitemintzearen zirrarak, eszitazioaren taupada azkarrak,

mihiz egindako laztanek eragindako hotzikarak... hauek guztiak gorputzean sentitzen ditugu, baina ez hori bakarrik, gorputzari esker sentituko ditugu. Gorputza da hamaika sentsazio bizi ahal izateko iturri aberatsena. Sentsazio horiek gozatzeko libre diren gorputzak beharko ditugu.

Aske izateko gure gorputza ezagutu eta onartu behar dugu. Gustura sentitzea ekarriko digu: ongizatea. *Procusto* modernoan ohean etzan orde, gorputz bakoitzari moldatzen zaion ohea aukeratzea dugu aukera onena, eta bertan gure gorputzari eskertu eskaintzen dizkigun laztan goxoak. ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

13. artikulua

TEKNOLOGIA



ARRATE SANCHEZ

OREKA IT

Egun gutxi pasa dira Internetek 30 urte bete zituela, eta pertsona bat urteekin aldatzen den moduan, badirudi orain arte ezagutu dugun Interneta desagertzeaz dagoela. Zergatik? Orain dela gutxi Europar Parlamentuak copyright-aren inguruko araudi berri bat onartu duelako.

Araudi berri hau onartu baino lehen, mundu digitaleko edukiak 2001eko Ecommerce-eko legediak arautzen zituen, eta, honen arabera, erabiltzaileak ziren edukien gaineko erantzukizuna zutenak. Esate baterako, sare sozialetan publikatzen zen edukiaren erantzulea argitaratzen zuen pertsona zen, eta plataforma digitalek kexak eta erreklamazioen osteko edukien ezabaketa egin zezaketen bakarrik. Baina legedi berri honen 13. artikulua dio orain edukien erantzuleak plataforma digitalak direla. Hau da, copyright-aren inguruko arau-hausterik egonez gero, haiek dira izugarritzko isunak ordaindu beharko dituztenak. Araudi honen onarpenak liskarra piztu egin du.

Antza denez, artikulua hau indarrean sartzen den unetik, sare sozialek zein bestelako plataforma digitalek automatikoki edonolako copyright-a duen edukia ezabatuko dute. Hori eta gero, eduki hauen sortzaileak ezabapen hori aurkeratu beharko dute. Are gehiago, plataforma digitalek ez dute bermatzen inpuignazio hori denbora laburrean konponduko dutenik. Ezabapena algoritmo batek egingen du, eta, ondoren, berrikusketak gizaki batek egingo ditu, horregatik inpuignazioa luzatu egingo da.

Horrela, YouTube edukia egiten duten erabiltzaileak aldarrikapenekin hasi dira, makina bidezko filtro horrek "zentsura" egiten duela uste dutelako. Badaezpadako ezabatzeak, gaur egungo

PLATAFORMA HANDIEK BESTE MERKATUETARA SO EGINGO DUTE, EUROPEARREN KALTERAKO

Internetaren amaiera ekarriko luke, kasu askotan araudia urratu ez bada ere. Gauzak horrela, plataforma handiek badakite Europako merkatuan lan egitea zaila izango dela, eta beste merkatuetara so egingo dute, europarren kalterako.

Eduki originalen egileak errespetatu behar direla argi dago (musikariak, idazleak, zuzendariak...) Baina, non dago muga haien lanen gaineko etekinen artean eta sorkuntza horiekin egindako beste edukien gaineko askatasunaren artean? Pelikula baten kritika egitean eszenaren bat erabiltzen bada, copyright-a hausten da? Kanon bat ordaindu behar da? Zuzenean ezabatu behar da eta berrikusi ea araudia betetzen den?

Argi dago Internetek askatasun zein arazo pila bat aurkezten dituela eta honen aurrean jarrera proaktiboa hartu behar dela, baina askotan, hartutako neurriek arazoei baino liskar gehiago sortzen dituzte. Ikusteke dago zer gertatuko den artikuluko polemiko honekin eta ekar ditzakeen ondorioekin. ■■■

Euskarri
informatikoa
Marketing
digitala
Web garapena

**GURE SUPERBOTEREAK
ZURE ENPRESAREN
ZERBITZURA**

SAP Business One
enpresa txiki eta
ertaintentzako ERPa

**ZERBITZU
GUZTIAK,
HORNITZAILE
BAKARRA**

OREKA INFORMATION TECHNOLOGIES
Vitoria-Gasteiz (Araba) - 945 067 219
orekait@eteekin.eus - www.eteekin.eus

ETEeKin
INFORMATIKA INTEGRALA

by **oreka.it**
enpresa txikiak

bai enpresen
merkaturako

SAP
Business One

Tradizioa eta industria artean

GURE BAZTERRAK



Oion

Kuadrilla: Arabako Errioxa

Udalerrria: Oion

Biztanleak: 3.273 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Herriko pertsonaia ezagunen artean Clemente Perez Arroyo pilotaria dago, *Panaderito de Oion*.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Arabako bosgarren udalerrria da Oion, biztanleen kopuruari begiratuta; halaber, herrialdeko aberatsenetakoa da tradizioetan eta ospakizunetan. Katxiaren zilipurdia da tradizioen artean ezagunena. Bitan egiten da, herriko jaietan; urtarrilaren 21ean eta 22an. Katxia lurrean etzaten da, kultur zinegotziaren aurrean, zinegotzia hiribilduko bandera mugitzen hasten da Katxiaren gainean, eta Katxia zilipurdiak egiten hasten da, seriotasun osoz, musikaren erritmoan.

Gainera, 1979tik, beste tradizio bat dute herrian pertsonaiekin lotuta: Katxiaren Jaitsiera. Izan ere, herriko festak urtarrilean izanda, ikaragarritzko hotza egiten zuenez, jende gutxi hurbiltzen zen. Horrenbestez, uda partean beste festa batzuk ospatzea erabaki zuten herritarrek. Esker Oneko festak sortu ziren horrela,

irailaren 4tik 8ra ospatzen direnak, eta horretan Katxia irudikatzen duen panpina jaisten da, elizako dorretik.

Aurorak, Martxoak, Danborrada, Zaindari Santuen dantza edo San Bizente eta San Anastasio eguneko prozesioan erretzen duten "zezentxoak" bezalako beste

ohitura zaharrak ere gordetzen ditu Arabako Errioxako herriak.

Iraganarekin lotura handia izan arren, Oion ere Arabako Errioxako erreferente industrial da. Izan ere, Kuadrillako enpresen %40 Oionen daude kokatuta, eta ekonomia gaur egungo motore nagusia ardogintza da, eta oiondar askok ardoaren inguruko negozioan dihardute, herrian ehunka mahasti-hektarea dauzkaten enpresa handiak baitaude.

Alta, egoera ekonomikoaren gainbeherak eragin handia izan du inguruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia tasarik altuena duten udalerrien artean dago Oion.

1991n, 662 euskal hiztun zeuden Arabako Errioxan. Gaur egun, 2.525 euskaldun daude, eta 2.200 "ia-euskaldun", Eustaten arabera. Euskararen igoera horretan zerikusi handia izan du Oiongo IKAko euskaltegiak eta bertako San Bizente ikastolak ere urteetan egindako lanak.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Niña Coyote eta Chico Tornado+Liher

Jimmy Jazz aretoan

Niña Coyote eta Chico Tornado eta Liher taldeek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan apirilaren 12an, 21:00etan. ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu. Eman izena hilaren 10a baino lehen.

Irabazleak:

Zinemarako sarrerak: Leire Telletxe Kortabarria eta Maxi Portilla Portilla.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Laiene Madernaz Rodriguez

Gasteiz

Apirilak 2. 3,100 kilo.

Gurasoak: Haizea eta Begoi.

Irudian, Laiene txikia, lo.



Ekai Vallejo Urzelai

Araba

Apirilak 8. Urtebete.

Gure deabrutxo Ekaini zorionak eta muxuak urzelaitar guztion partez. Zorionak!!



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Apirilaren 5etik 11ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Pelax

Bidelapurrak taldearekin batera.
Ostirala 5, 21:30etan, gaztetxean.

ANTZERKIA

IRUÑA OKA 'Ni ala zu'

Antzerki musikatua.
Ostirala 5, 18:00etan, gizarte etxean.

ARAIA 'Bakean dagoena bakean utzi'

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin.
Larunbata 6, 19:00etan, udaletxean.

LAUDIO 'Desentxufatuak'

Tartean Teatroa taldearen eskutik.
Igandea 7, 18:30ean, Lamuzan.

HAURRAK

MURGIA 'Iraungorriko Marimiri'

Familientzako ikuskizuna, Zurrunka taldearen eskutik.
Larunbata 6, 19:00etan, udaletxean.

KANPEZU Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

Korrika kulturalaren barruan.
Igandea 7, 12:00etan, pilotalekuan.

BERTSOLARITZA

LAUDIO 'Neretik' ikuskizuna

Andoni Egaña eta Jon Ostolazarekin.
Ostirala 5, 19:30ean, Lamuzan.



ALEA

GASTEIZ 'Herensuge zurien artean' dokumentala

Alberto Zerain mendizaleak 2011. urtean Nanga Parbat mendian egin zuen espedizioaren inguruko dokumentala. Dokumentalaren ostean, solasaldia izango da Iñaxio Lopez Aranarekin.
Osteguna 11, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

TREBIÑU Bertso afaria

Manex Agirre eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.
Ostirala 5, 21:00etan, Askartzako sagardotegian.

BESTELAKOAK

MAEZTU 'Laburbira'

Euskarazko film laburren zirkuitoa. Bederatzi labor aurkeztuko dituzte.
Ostirala, 19:00etan, udaletxean.

GASTEIZ Idazleekin solasean

Arantxa Urretabizkaia idazlearekin solasaldia, Patxi Zubizarretak aurkeztuta.
Asteazkena 10, 19:00etan, Pilar gizarte etxean.

GASTEIZ Lemkera

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituen zikloaren barruan. Jon Mikel Intsaustirekin.
Asteazkena 10, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Jimmy jazz gasteiz **APIRILA**

Ot. 4 **KEE MARCELLO (EUROPE)** + DESIRA

Os. 5 **THE LIZA COLBY SOUND** + THE DAMN TRUTH

Lr. 6 **CHILDRAIN** + FEARS AWAY + MINERVA

Ot. 11 **EGURRA TA KITTO** + GORPUZKINGZ

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

IRAKURRI GOZATU ETA OPARITU

Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko txkeka lortuko duzu.
Martxoaren 18tik maiatzaren 31ra, Gasteizko udal liburategietan.


Antolatzaileak:



Babesleak:



Loguntzaileak:



**TXEKEAK ERABILTZEKO
GASTEIZKO LIBURU
DENDAK.**

Albeniz
Anegon
Arlekin

Astralibros
Ayala
Casa Del Libro

Elkar
Jakintza
Mara-Mara

Saga
Zapateneo
Zuloo

errenta

2018 ARABA ÁLAVA

Errenta
eta Ondarea
Renta y
Patrimonio



Informazio guztia:

■ Toda la información en:
araba.eus



- Apirilaren 5etik ekainaren 25era
Del 5 de abril al 25 de junio

Zure talde lana

Osasungintza, hezkuntza, gizarte eta kultura zerbitzuak... Horiek funtziona dezaten, talde lana behar da.

Zerga aitortpena egiten baduzu, zerbitzu publiko horiek eta behar dituzun ekipamenduak izatea bermatzen duzu. Hori da zure talde lana.

Kontsultatu aurkezteko epeak eta lekuak araba.eus-en.

Tu labor de equipo

La sanidad, la educación, los servicios sociales y culturales... Que todo funcione es cuestión de equipo. Con tu declaración de impuestos contribuyes a garantizar la disponibilidad de los servicios públicos y de los equipamientos que necesitas. Es tu labor de equipo.

Consulta los plazos y lugares de presentación en: araba.eus

